

## 2010eko EKITALDIKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO MEMORIA

### Sarrera

Basauriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrek premisa honekin landu dira: krisi ekonomikoko garai hauetan inoiz baino kontu handiagoa izan behar dela behar garrantzitsuenei erantzuten dieten jardunak lehenesteko, eta, funtsean gure Udalak eskura dituen baliabide ekonomikoekin —nabarmen urriagoak azken urteetakoan aldean— ahalik eta eraginkortasunik handiena lortu ahal izateko modua emango duten gastu partida egokienak balioesteko.

Lan horren emaitza da honekin batera aurkeztu dugun dokumentua. Bertan, aurreikusitako sarrerak eta gastuak zehazten dira, hala Udala osatzen duten erakunde guztiak batera hartuta nola horietako bakoitza bere aldetik hartuta:

Basauriko Udala  
Udal kultur etxea  
Kiroletako Udal Institutua  
Udal euskaltegia  
Zaharren egoitza

Halaber, Udal Aurrekontuaren eranskin batean, Basauri Etxebarri Behargintza sozietate mugatuaren aurrekontua jaso da, Udalak baitu sozietate horretan parte-hartze handiena.

Aurrekontu hauen bereizgarria, batez ere oraingo honetan, gastu soiltasuna da. Izan ere, halaxe egitea dagokigu egoera ekonomiko orokorrean bizitzea egokitu zaigun garai hauetan. Aurrekontuen edukia hobeto ulertzeko, memoria hau irakurtzeko gonbita egiten dugu, bai eta udal arlo eta erakunde autonomo bakoitzak Basauriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren parte gisa prestatu duen memoria irakurtzeko gonbita ere.

## MEMORIA SOBRE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DEL EJERCICIO 2010

### Introducción

Los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Basauri para el ejercicio 2010 se han elaborado bajo la premisa de que es en estos momentos de crisis económica en los que mayor cuidado se ha de tener a la hora de priorizar actuaciones para cubrir las necesidades más importantes y seleccionar, así como cuantificar, las partidas de gasto más apropiadas que, en suma, permitan a nuestro Ayuntamiento obtener la mayor eficacia posible con los recursos económicos disponibles, notablemente mermados respecto a los últimos años.

Fruto del trabajo anterior es el documento que se acompaña en el que se detallan los ingresos y gastos previstos, tanto a nivel consolidado, como de cada uno de los entes que lo conforman:

Ayuntamiento de Basauri  
Casa Municipal de Cultura  
Instituto Municipal del Deporte  
Euskaltegi Municipal  
Residencia de Ancianos

Asimismo, el Presupuesto del Ayuntamiento incluye, en un anexo, el de la sociedad Basauri Etxebarri Behargintza, S.L., en la que participamos mayoritariamente.

Estos Presupuestos se caracterizan, especialmente en esta ocasión, por su austeridad en el gasto, como corresponde a los tiempos que nos está tocando vivir en la situación económica general. Para una comprensión más completa de su contenido, desde aquí invitamos a la lectura de esta memoria así como de las memorias que cada una de las áreas municipales y de los organismos autónomos han preparado para su inclusión como parte integrante de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Basauri para el ejercicio 2010.

## **Ezaugarri orokorrak**

Oro har, 2010eko aurrekontua 52,8 milioi eurokoa da, dena batera kontuan hartuta. Horrek esan nahi du % 17,2 murriztu dela 2009rako onartutakoaren aldean. Milioi bat euro eskaseko aurrezki garbia du. Oso kopuru apala da hori, baina ez du horregatik meritu txikiagoa, kontuan hartuta diru sarrera arruntak drastikoki murriztea aurreikusten dela, hain zuzen ere % 10 inguru, iaz baino 5 bat milioi euro gutxiago.

Diru sarrera arruntak murriztearen arrazoi nagusia da foru aldundiek kudeatzen dituzten itunpeko zergak biltzetik datozen sarrerak gutxiago izatea aurreikusten dela. Izan ere, hasiera batean, % 20 murriztuko dira 2009ko aurrekontukoaren aldean.

Gastu arruntei dagokienez, esan dezakegu lehenengo aldiz Udal honetako aurrekontu batek guztizko zenbatekoa murriztu duela, zehazki % 2,1, aurreko urteko aurrekontuaren aldean. Eta hori hala da, nahiz eta handitu egin diren gizarte izaera nabarmena duten programetarako partidak, hala nola: gizarte laguntzetarako programa, etxez etxeko laguntzak, garapen lankidetzarako eta immigrazioarako programa, lanbide hastapeneko zentroko programa eta mugikortasun iraunkorraren programa.

Beste alde batetik, inbertsioen kapituluan, Udalbatzak lehendik onartuta dauzkan eta 2010. urtean egin asmo dituen urte anitzeko inbertsioak soilik jaso dira. Hasiera batean, aurreikusi dugu horiek finantzatzeko epe luzeko kredituetarako jo beharko dela neurri handi batean.

## **Gastu arruntaren banaketa, arloen, erakundeen eta programen arabera**

Aurrekontuaren sailkapen organikoaren arabera, Basauriko Udalaren gastu arrunt bateratuak modu honetara banatzen dira:

## **Aspectos generales**

Globalmente, el Presupuesto para 2010 asciende a un total consolidado de 52,8 millones de euros, lo que significa una reducción de un 17,2% respecto al aprobado para 2009. Presenta un ahorro neto de apenas 1 millón de euros, cifra muy modesta pero no menos “meritoria”, habida cuenta de la drástica reducción de los ingresos corrientes prevista, que rondará el 10% de reducción, unos 5 millones de euros menos que el año pasado.

La causa fundamental de la mencionada disminución de los ingresos corrientes radica en la previsión de los ingresos provenientes de la recaudación de tributos concertados, gestionados por las Diputaciones Forales, que sufrirían, a priori, una reducción del 20% respecto a lo que se presupuestó para 2009.

A nivel de los gastos corrientes, podemos decir que, por vez primera, un Presupuesto de este Ayuntamiento recoge un recorte de su cuantía global, en concreto un 2,1%, respecto al Presupuesto del año anterior. Y eso, a pesar de que se han incrementado las partidas destinadas a los programas de marcado carácter social, tales como los programas de Ayudas de Carácter Social, Ayudas Domiciliarias, Cooperación al Desarrollo e Inmigración, Centro de Iniciación Profesional y Movilidad Sostenible.

En otro orden de cosas, el capítulo inversor se ha limitado a recoger las inversiones plurianuales ya aprobadas por el Pleno cuya ejecución está prevista para 2010, previéndose que, de inicio, su financiación requerirá, en buena medida, recurrir a créditos a largo plazo.

## **Distribución de los gastos corrientes por areas, entidades y programas**

De acuerdo con la clasificación orgánica del Presupuesto, los gastos corrientes consolidados del Ayuntamiento de Basauri se distribuyen del modo siguiente:

Código Kodea	Descripción Azalpena	Gasto corriente Gastu arrunta	% Distribución Banaketa (%=
11	Bienestar Social Gizarte Ongizatea	9.024.571,51	19,9%
12	Cultura Kultura	6.610.505,68	14,6%
13	Salud Osasuna	691.379,19	1,5%
21	Hacienda Ogasuna	1.423.163,23	3,1%
22	Bienes y Patrimonio Ondasunak eta ondarea	541.153,76	1,2%
23	Empleo Promocion Economica y Comercio Enplegua, ekonomiaren eta merkataritzaren sustapena	1.578.685,21	3,5%
31	Infraestructuras Hirigintza, etxebizitza, obrak eta azpiegitura	15.465.616,71	34,1%
32	Movilidad y Agenda 21 Mugikortasuna eta Agenda 21	227.801,55	0,5%
41	Recursos Humanos Giza baliabideak	2.932.801,13	6,5%
42	Modernizacion y Atención Ciudadana Berrikuntza eta herritarrentzako arreta	364.060,86	0,8%
43	Nuevas Tecnologías Tecnologia berriak	723.581,95	1,6%
50	Presidencia de la Corporación Korporazioko lehendakaritza	754.335,95	1,7%
51	Seguridad Ciudadana Herritarren segurtasuna	3.693.194,81	8,2%
52	Igualdad Berdintasuna	401.556,79	0,9%
53	Asesoramiento Jurídico Lege aholkularitza	709.417,44	1,6%
60	Coordinación Areas Arloen koordinazioa	162.715,77	0,4%
		45.304.541,54	100,0%

Aurreko urteetan bezala, Hirigintza, Etxebizitza, Lanak eta Azpiegitura arloa nabarmentzen da batez ere. Izan ere, arlo hori arduratzen da herriko bizi-kalitaterako ezinbestekoak diren gastu arruntak kudeatzeaz, hala nola ur hornikuntza, garbiketa, estoldak, hirigintza kudeaketa eta bide publikoen nahiz parke eta lorategien mantentze-lanak kudeatzeaz.

Modu berean, erakunde kudeatzailearen arabera bana dezakegu aurrekontu arrunta.

Como en los años anteriores, destaca sobre todo el importante peso del área de *Urbanismo, Vivienda, Obras e Infraestructura*, por ser la encargada de gestionar gastos corrientes de carácter esencial para la calidad de vida del municipio, tales como el suministro de agua, la limpieza, el alcantarillado, la gestión urbanística o el mantenimiento de vías públicas y parques y jardines.

De igual manera, podemos distribuir el Presupuesto Corriente según el ente que lo va a gestionar:

<i>Erakundea Ente</i>	<i>Euroak, milakoetan Miles de €</i>	<i>Portzentajea Porcentaje</i>
Basauriko Udala	36.102	79,69
Ayuntamiento de Basauri		
Kultur etxea	3.070	6,77
Casa de Cultura		
Kiroletako Udal Institutua	2.445	5,40
Instituto Municipal del Deporte		
Zaharren egoísta	2.109	4,65
Residencia de Mayores		
Udal euskaltegia	1.579	3,49
Euskaltegi Municipal		
<b>Guztira / Total</b>	<b>45.305</b>	<b>100,00</b>

Oro har, arlo eta erakunde guztietako aurrekontuak murriztu dira 2010. urteko gastu arruntetan. Dena dela, alderdi orokorrei buruz jardutean jadanik aurreratu dugun bezala, ondoko programetan aurrekontu zuzkidurak handitzea erabaki da (euroak milakoetan):

En general, todas las áreas y organismos han visto reducidos sus presupuestos para gastos corrientes para el año 2010. No obstante, como ya adelantamos al comentar los aspectos generales, se ha decidido que en los siguientes programas debían incrementarse las dotaciones presupuestarias (en miles de euros):

<i>Programa</i>	<i>2010</i>	<i>2009</i>
Gizarte laguntzak	456	281
Ayudas de carácter social		
Etxez etxeko laguntzak	2.462	2.377
Ayudas domiciliarias		
Lanbide hastapeneko zentroa	745	622
Centro de Iniciación Profesional		
Lankidetzeta eta immigrazioa	404	203
Cooperación e Inmigración		
Mugikortasun iraunkorra	575	500
Movilidad sostenible		

## **Diru sarreraren aurreikuspena**

Aurrekontuko diru sarrerak kalkulatzeko orduan, 2010eko ekitaldian kontzeptu bakoitzari dagokionez zenbat likidatzea espero den hartu da kontuan, kalkulu arrazoizkoak eginda. Pisu handiena transferentzia arruntei dagokie, diru sarrera arrunten % 53,7 baitira. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, udal finantzaketaren iturri nagusia udalek itunpeko zergen bilketan duten parte-hartzea da. Nolanahi ere, baliabide horren garrantzi erlatiboa nabarmen gutxitu da, 2009ko aurrekontuan % 59,3koa baitzen.

Izan ere, hurrengo urtea zaila izango da ikuspegi ekonomikotik: aurreratu dugun bezala, parte-hartze hori 2009ko aurreikuspenaren aldean % 20 jaistea aurreikusten dugu.

Gure erakundeak ordainarazten dituen zergei dagokienez, aurreikusitako zenbatekoak bat datoiz 2010. urterako onartutako zerga ordenantzekin. Hain zuzen ere, bestela ezin izan baitzitekeen krisi ekonomiko orokorreko garai hauetan, bere hartan utziko dira ia zerga tarifa guztiak. Hala ere, gure Udalak bere egin du zergak kudeatzeko eta biltzeko prozesuak hobetzen jarraitzeko erronka, diru sarrera propioak optimizatu ahal izateko eta horiek aurrekontua finantzatzeko iturrietan duten pisu erlatiboa gero eta handiagoa izan dadin lortzeko. Hori lortuz gero, gure herriak finantza autonomia handiagoa izango du.

## **Inbertsioak**

2010. urterako aurreikusitako inbertsioak 6,6 milioi euro dira guztira. Zenbateko apala da hasiera batean, baina iaz abian jarritako inbertsio plan handinahiarekin jarraituko dela esan nahi du. Halaber, adierazi behar da 2009ko aurrekontuak, gaur egungo garapenean, plan horren zatirik handiena biltzen duela. Horren ondorioz, 2009ko ekitaldiko likidazioa ixtean, inbertsio horiek 2010eko aurrekontuari gehituko zaizkio.

## **Previsiones de ingresos**

Los ingresos presupuestados están basados en las estimaciones razonables de lo que se espera liquidar a lo largo del ejercicio 2010 en cada uno de los conceptos. El mayor peso de los mismos corresponde a las Transferencias Corrientes, que representa el 53,7% del total de ingresos corrientes, dado que la principal fuente de financiación municipal en el País Vasco procede de la participación de los ayuntamientos en la recaudación de los tributos concertados. No obstante, la importancia relativa de este recurso decrece considerablemente, ya que en el Presupuesto de 2009 alcanzaba el 59,3%.

Y es que afrontamos un año difícil desde el punto de vista económico, para el que prevemos, como ya hemos adelantado, que dicha participación descienda un 20% en relación a la previsión del 2009.

En cuanto a los tributos exaccionados por nuestra entidad, las cifras previstas son coherentes con las Ordenanzas Fiscales aprobadas para 2010, que, como no podía ser de otra manera en tiempos de crisis económica general, contemplan la congelación de la práctica totalidad de las tarifas tributarias. Así y todo, nuestro Ayuntamiento asume el reto de continuar mejorando los procesos de gestión tributaria y de recaudación, de forma que sea posible optimizar los ingresos propios y lograr que el peso relativo de los mismos sea cada vez mayor respecto de la totalidad de las fuentes de financiación presupuestaria, lo que redundará en una mayor autonomía financiera de nuestro municipio.

## **Inversiones**

Las inversiones previstas para el 2010 ascienden a 6,6 millones de euros. Es, en principio, una cantidad modesta, pero significa la continuación de un ambicioso plan de inversiones que se puso en marcha el año pasado. Asimismo, hay que decir que el Presupuesto 2009, en su desarrollo actual, incluye la mayor parte de dicho plan, lo que conllevará que, una vez cerrada la Liquidación del ejercicio 2009, dichas inversiones serán incorporadas al Presupuesto 2010.

Ondoko taulan, xehe-xehe adierazi dira gaur arte 2009ko aurrekontuan sartu diren inbertsio nagusiak, bai eta hasieran 2010eko aurrekontuan jasotzen direnak ere (milaka eurotan adierazita):

En el cuadro siguiente, se han detallado las principales inversiones que están presupuestadas, hasta la fecha, en el Presupuesto 2009, así como las que, inicialmente, recoge el Presupuesto 2010 (expresado en miles de euros):

<i>Azalpena / Descripción</i>	<i>2009</i>	<i>2010</i>
<i>E Planeko obrak, Espainiako Gobernuak finantzatutakoak</i>	7.719	
<i>Obras Plan E financiadas por Gobierno Central</i>		
<i>Bide publikoetako obrak, finantzaketa propioak</i>	5.590	
<i>Obras en vías públicas con financ. propia</i>		
<i>Artunduagako eta Baskoniako zubiak</i>	4.750	
<i>Puentes de Artunduaga y Baskonia</i>		
<i>Eraikin publikoen egokitzapena</i>	4.318	60
<i>Acondicionamiento de edificios públicos</i>		
<i>Pozokoetxeko kolektorea. I. eta II. faseak.</i>	4.041	646
<i>Colector de Pozokoetxe. Fase I y II</i>		
<i>Herritarren Segurtasunerako eraikina</i>	3.555	601
<i>Edificio para Seguridad Ciudadana</i>		
<i>Emakumeen Etxea eta balio anitzeko zentroa</i>	2.425	
<i>Casa de la Mujer y Centro polivalente</i>		
<i>Social antokiaren berriztatzea</i>		2.000
<i>Reforma del Social Antzokia</i>		
<i>Hernan Cortes auzoa berriz urbanizatzeko lanak</i>		1.688
<i>Reurbanización Bº Hernan Cortes</i>		
<i>Axular kaleko lanak</i>	1.655	
<i>Obras en calle Axular</i>		
<i>Euskal Artearen Museoa</i>	1.200	
<i>Museo de arte vasco</i>		
<i>Aparkalekuak</i>	1.050	739
<i>Parcelas aparcamiento</i>		
<i>Taberna Mayor birgaitzeko lanak</i>		739
<i>Rehabilitación Taberna Mayor</i>		
<i>Beste inbertsio batzuk</i>	2.629	155
<i>Otras inversiones</i>		
<i>Guztira (2009ko irailaren 30ean)</i>	<b>38.932</b>	<b>6.628</b>
<i>Total (2009, a 30 de septiembre)</i>		

Hasieran 2010eko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak epe luzerako zorren bidez finantzatu asmo dira hein handi batean. Dena dela, litekeena da azkenean baliabide horretara jo beharrik izan gabe edo soilik neurri batean jo behar izanda egin ahal izatea inbertsioak. Hori, batez ere, 2009ko aurrekontuaren likidazioak ematen duen emaitzaren arabera izango da.

Las inversiones previstas inicialmente para el ejercicio 2010 se prevén financiar en un alto porcentaje mediante el recurso a la deuda a largo plazo, si bien es posible que puedan acometerse finalmente sin recurrir a la misma, o quizá solo parcialmente, lo que dependerá sobre todo del resultado que arroje la Liquidación del Presupuesto 2009.